

Biozidek gizakion edo animalien osasuna kalte dezaketen organismoei aurka egiten diete, produktu horiek dituzten substantzia aktiboen ekintzaren bitartez.

Kontsumitzaileen osasuna babesteko, azken urteotan Europako Batzordeak biozidak baimendu ditu eta elikagaien arloko erabilera arautu du.

BIOZIDAK

Zer dira?

Biozidak substantzia aktiboak dira. Prestakinak (substantzia aktibo bat edo gehiago dutenak) edo mikroorganismoak izan daitezke, eta haien helburua organismo kaltegarriak suntsitzea, indargabetzea, neutralizatzea, haien eragina ekiditea edo kontrolatzea da, bide kimiko zein biologikoen bitartez.

Biozidek gizakion edo animalien osasuna kalte dezaketen organismoei aurka egiten diete, produktu horiek dituzten substantzia aktiboen ekintzaren bitartez.

Gaur egungo araudiaren egoera

(UE) [528/2012 Araudia](#), [Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2012ko maiatzaren 22an argitaratua](#), biozidak saltzeari eta erabiltzeari buruzkoa. produktu hauei aplikatzen zaien oinarritzko araudia da.

Biozidak erregulatzen Europa mailan argitaratu zen lehen araudia [98/8/CE Zuzentaraua](#) izan zen, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak otsailaren 16an argitaratua, biozidak saltzeari buruzkoa. Zuzentarau horrek Europar Batasuneko herrialdeetako legeria harmonizatzen zuen produktu horien erabilerari dagokionez.

Zuzentarau hori urriaren 11ko [1054/2002 Errege Dekretuaren](#) bitartez txertatu zen

Espainiako araudian. Dekretu horrek biozidak erregistratzeko, baimentzeko eta saltzeko jarraitu beharreko ebaluazio-prozesua arautzen zuen.

Geroago, 2013ko irailaren 1ean, [528/2012 zenbakiko EBko Araudia](#) indarrean jarri zen. Hala, 2013ko irailaren 1etik aurrera, eta aipatu Araudian ezarritako behin-behineko neurrietan xedatutakoa errespetatuz, [98/8/CE Zuzentaraua](#) bertan behera gelditu zen.

Europa mailan, prozedura bat ezarri da 2000ko maiatza baino lehen komertzializatutako substantzia aktiboak berrikusteko. Une honetan, prozedura hori Batzordearen [1062/2015 zenbakiko \(EB\) Araudi Eskuordetuak](#) erregulatzen du; araudi horrek Europako Parlamentuaren eta Batzordearen [528/2012 zenbakiko \(EB\) Araudian](#) aipatzen diren biozidetan existitzen diren substantzia aktiboen azterketa sistematikoa egiteko lan-programa xedatzen du.

Substantzia aktiboa Europako substantzia aktiboen zerrendan txertatzen denean, substantzia hori duten produktuak baimentzeko, [528/2012 Araudian](#) aipaturiko europar prozedurak aplikatuko dira.

Substantzia aktiboak zerrendan sartu arteko trantsizio-epean, herrialde bakoitzak zehaztutako prozedurak aplikatuko dira (aplikatu beharreko araudia [3349/1983 Errege Dekretua](#) da, pestizidak ekoizteko, komertzializatzeko eta erabiltzeko araudi tekniko-sanitarioa onesten duena, eta [1054/2002 Errege Dekretua](#)).

BIOZIDAK SAILKATZEA

Egungo araudiaren arabera, 22 biozida mota (TP) existitzen dira, 4 talde nagusitan sailkatuta:

1. talde nagusia: desinfektatzaileak Ez ditu barne hartzen biozida-efektua lortu nahi ez duten garbitzeko produktuak, garbigarri likidoak, hautsezkoak eta antzeko produktuak barne.

- TP1: giza higiena
- TP2: pertsonekin edo animaliekin zuzenean erabiltzeko diseinatuta ez dauden desinfektatzaileak eta algizidak
- TP3: animalien higiena
- TP4: elikagaiak eta pentsuak
- TP5: ur edangarria

2. talde nagusia: kontserbatzaileak Mikrobioak eta algak agertzea ekiditen duten biozidak bakarrik.

- TP6: gordeta dauden produktuentzako kontserbatzaileak
- TP7: pelikuletarako kontserbatzaileak
- TP8: zura babesteko produktuak
- TP9: zuntzak, larrua, kautxua eta material polimerizatuak babesteko produktuak
- TP10: eraikuntza-materialen kontserbatzaileak
- TP11: hozte-sistemetan eta industria-prozesuetan erabiltzen diren likidoak babesteko produktuak

- TP12: lizunaren aurkako produktuak
- TP13: materialak mozteko edo lantzeko erabiltzen diren likidoak babesteko produktuak

3. talde nagusia: pestizidak

- TP14: karraskarien aurkakoak
- TP15: hegaztien aurkakoak
- TP16: moluskuen, zizareen eta beste ornogabe batzuen aurkako produktuak
- TP17: arrainen aurkakoak
- TP18: intsektuen, akaroen eta beste artropodo batzuen aurkako produktuak
- TP19: animaliak erakartzeko eta uxatzeko produktuak
- TP20: beste animalia ornodun batzuk kontrolatzeko produktuak

4. talde nagusia: beste biozida batzuk

- TP21: zoldaren aurkako produktuak
- TP22: baltsamatzeak egiteko produktuak eta taxidermia-

**BIOZIDAK ERREGULATZEN DITUEN
ARAUDITIK KANPO DAUDEN
PRODUKTUAK**

Badaude antzeko ezaugarriak dituzten eta Bioziden Araudiaren aplikazio esparrutik kanpo dauden hainbat produktu. Produktu horiek arautzeko beste araudi espezifiko batzuk daude. Hauek dira, besteak beste:

- Fitosanitarioak.
- Gizakientzako zein animalientzako sendagaiak
- Kosmetikoak
- Produktu sanitarioak
- Elikagai-gehirriak
- Garbigarriak

Halaber, Bioziden Araudia ez zaie aplikatuko erakartzeko edo uxatzeko erabilitako elikagai edo pentsuei, ez eta teknologiko laguntzaile gisa erabilitako produktuei ere.



BIOZIDAK ERREGISTRATZEA ETA BAIMENTZEA

Merkaturatu aurretik, eta eskumendun agintarien baimena eskuratze aldera, biozidek hainbat baldintza bete beharko dituzte. Eskumendun agintariek, biozida bat erabiltzeko baimena eman aurretik, substantzia aktibo bakoitzaren arriskua kontuan hartuko dute, bai eta biozida osatzen duten substantzietatik erator litezkeen arriskuak ere.

Substantziaren ondorio kaltegarriak aztertzerakoan, honako hauek hartuko dira kontuan: toxikotasun larria, narritadura, korrosibotasuna, sentsibilizazioa, dosi errepikakorrek

eragindako toxikotasuna, genotoxikotasuna, kartzinogenizitatea, neurotoxikotasuna eta erreproduktzioak eragindako toxikotasuna. Horrez gain, ezaugarri fisikokimikoak eta substantzia aktiboak izan ditzakeen beste edozein ondorio kaltegarri zein arrisku posible ere hartuko dira kontuan.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2012ko maiatzaren 22an biozidak saltzeari eta erabiltzeari buruz emandako (UE) 528/2012 Araudiaren 95. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2014ko martxoaren 11ko 334/2014 Araudian, biozidak saltzeari eta erabiltzeari buruzko 528/2012 (EB) Araudia aldatzen duenean (zehazki, merkatura sartzeko zenbait baldintza aldatzen ditu; bertan ezartzen dira substantzia aktibo baten espedientea atzitzeko behin-behineko neurriak) ezarri zen 2015eko irailaren 1etik aurrera, biozida bat 1. atalean bildutako zerrendako substantziez osaturik badago edo zerrendako substantziak sortzen baditu, ezin izango dela merkatuan saldu substantziaren hornitzailea edo biozidaren hornitzailea 1. atalean bildutako zerrendan ageri den kasuetan salbu, biozida horri dagokion edo dagozkion produktu motan edo motetan.

Substantzien eta Nahasketen Europako Agentziak (ECHA) aldian-aldian argitaratzen du zerrenda hori haren webgunean. Hori dela eta, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da (sarbidea baimentzen duen gutuna, erosketaren emate-agiria, faktura etab.), produktua osatzen du(t)en substantzia aktiboa(k) ekoitzi d(it)uen hornitzailea ECHAren zerrendan dagoela frogatzeko.

BIOZIDEN ERABILERA ELIKAGAIEN SEKTOREAN

Gizakien elikagaien sektorean, egun indarrean dagoen araudiak zorrotz mugatzen du bioziden erabilera. Produktu horiek ezin dira era orokortuan erabili.

Elikagaietan erabiltzen diren biozidak, oro har, TP hauetakoak dira:

- **4. talde nagusia:** elikagaiekin edo pentsuekin kontaktuan dauden gainazalak desinfektatzeko produktuak: Pertsonentzako zein animalientzako elikagaiak edo pentsuak (ur edangarria barne) ekoizteko, garraiatzeko, gordetzeko edo kontsumitzeko erabiltzen diren ekipoak, ontziak, kontsumorako tresnak, gainazalak edo hodiak desinfektatzeko erabiltzen dira. Elikagaiekin eta/edo pentsuekin kontaktuan egon daitezkeen materialak estaltzeko erabiltzen dira.
- **5. talde nagusia:** edateko ura desinfektatzeko produktuak: Pertsonen zein animalien kontsumorako edateko ura desinfektatzeko erabiltzen diren produktuak.

Elikagaien sektorean zuzenean erabiltzen diren biozidez gain, badaude elikagaiekin zeharkako lotura duten eta beste sektore batzuetan erabiltzen diren biozidak ere. Hauek dira beste sektore horiek: animalientzako elikagaiak, giza higiena, animalien higiena, pestizidak, eta animaliei edo gizakiei zuzenean aplikatzera bideratuta ez dauden desinfektatzaileak eta algizidak (airea desinfektatzeko produktuak eta abar).

ONDORIOAK

1. **Biozidek** **gizakion** **edo animalien osasuna** **kalte dezaketen organismoek aurka egiten** **diete**, produktu horiek dituzten **substantzia aktiboen** ekintzaren bitartez.

2. **Gizakien elikagaien sektorean**, egun indarrean dagoen araudiak **zorrotz mugatzen du** bioziden erabilera.

3. Babes mailarik altuena eskaini ahal izateko, biozidek **Substantzia Aktiboen Zerrendan ageri diren substantzia aktiboak** izan beharko dituzte; izan ere, substantzia horiek bioziden osagai izateko baimena dute.

ERABILITAKO ITURRIAK ETA BESTE ITURRI INTERESGARRI BATZUK

Bioziden erregistro ofiziala – MSSSI

Biozidei buruzko araudia – MSSSI

Substantzia aktiboen zerrenda - ECHA

REACH informazio-ataria – CLP

Substantzia kimiko biozidei buruzko informazioa, Euskadi – Osakidetza

Substantzia eta Nahasketa Kimikoen Europako Agentzia - ECHA

Biozidei eta osasun-ikuskaritzetan duten aplikazioei buruzko araudiaren eguneratzea - Murtziako Eskualdeko Osasun Publikoaren Zuzendaritza

Biozidak eta elikagaien sektorea – EROSKI CONSUMER